

Letren errepublika txiki handia

ARITZ MUTIOZABAL

Miguel Cervantes, William Shakespeare eta Garcilaso de la Vega idazle gogoangarriak zendu ziren eguna oinarri hartuta, Liburuaren Eguna ospatuko dute bihar mundu zabalean. Eskualdeko hainbait udalerrik ere horretarako beta hartuko dute, datozen egunotarako antolatu dituzten ekitaldiei nahiz jardueri esker. Egun aipagarriarekin bat egingo duten lehenak, guztietan goiztiarrenak, zarauztarrak izango dira. Gaur bertan, 19:30ean, Lizardi Literartur Saria banatuko dute liburutegian. Aurtengo irabazlea Castillo Suarez idazle altsasuarra izan da, Ebelina Mandarina izeneko lanarekin.

Literatur lehiaketekin jarraituz, bihar arratsaldean Getariako IX. Literatur Lehiaketako sari-banaketa ekitaldia egingo dute; 18:30an jarri dute hitzordua, udaletxeko batzar aretoan. Epaimahaia atzo bildu zen aurtengo idatzi onenak erabakitzeko. Beraz, gaur emango dituzte jakitera sarituen izenak. Bestalde, Aiako Orioko Euskaraz Gazte Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea bihar bukatuko da. Bi modalitate daude, ipuinak eta bertso edo olerkiak, eta parte hartzaileak 16 urtetik gorako oriotarrak edo aiarrak izan behar dute.

Liburu eskaintza

Azpeitiko Udalak argitaratutako liburuen eskaintza berezia egingo dute Liburuaren Nazioarteko Egunaren baitan. Horrenbestez, liburuak 5 euroren truke erosteko aukera izango da, bihar egun guztian zehar eta etzi goizean, udaletxeko arkupetan. Ekimenaren bidez, Azpeitiko Udalak bi helburu bete nahi ditu: alde batetik, herritarren artean irakurtzeko zaletasuna sustatzea eta bestetik, berriz, stock-ean dituen liburuei irteera ematea. Gainera, eskuratutako liburu bakoitzarekin, erosketetako poltsa berrerabilgarria oparituko du Udalak.

Ipuin kontalariak eta solasaldia

Lehiaketez haratago, literaturarekin zerikusia duten beste jarduera batzuk egitarautu dituzte. Gaur, adibidez, Pello Añorga kontalaria izango da Zarauzko liburutegian. Bihar, ipuin kontaketa saioa eskainiko du Miriam Mendozak, Azpeitiko liburutegiko haurren txokoan. Datorren asteazkenean, berriz, Bernardo Atxagaren Zeru horiek liburuaren inguruko solasaldia egingo dute Zarautzen.